

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Bezeroak dira edozein negozio-ereduren oinarria, hortaz, gure bezeroak nolakoak izango diren zehaztea behar-beharrezkoa da proiektu hau aurrera eramanez ahal izateko. Gure bezeroak kirolariak izango lirateke, edozein gimnasiorenak bezala, baina berezitasun gisa, gure entrenadoreak erresistentzian espezializatuak izango dira, errendimendu altuko kirolariak izango liratekeelako gure bezero nagusiak, hau da: korrikalariak, txirrindulariak... gure makina berezi hauei erabilpen handiena hauek emango dietelako.

Hauek, esan bezala, iraupen luzeko kirolak egiten dituzte; horregatik, gure bizikleta eta zintak denbora luzez izango ditugu martxan, gure makinak energia asko sortuz eta hau salduz, gure helburua den autofinantzaketara hurbiltzen lagunduko digu. Gure lokalean, gimnasio arrunt batean dauden makinak egongo dira, gure bezeroek gorputzeko atal asko landu ahal izateko; adibidez: TRX zintak, press bankua...

Adinari dagokionez ez dugu inor alde batera utziko, 15 urtetik beherakoak ez dira heldu batekin joan beharko beste gimnasio batzuetan bezala, izan ere, gure entrenatzaileek lagundu egingo diete; horrela arriskuak ekidingo ditugu bai eurentzat eta baita gurentzat ere.

Horrez gain Euskal Herriko kirolari famatuak gure bezero egiten saiatuko gara, hauek duten izenonaz baliatzeko euren modalitate bereko kirolariak gerturatu eta gure bezero izateko. Kirolari hauek Ainhoa Sanz, Markel Irizar, Lourdes Oiarbide... izan daitezke esate baterako.

Hala ere, gure kuota ez litzateke beste gimnasioa batzuen baina altuagoa izango, gure makinek sortutako energia salduz hasierako inbertsioa neurri berean errekuperatuko dugu eta, nahiz inbertsio hau garestia izan. Gure gimnasioa Ordizin kokatuko dugu, baina Beasainetik gertu dagoenez, bi herrietako bezeroak izan ditzakegu, eta bi herri hauen biztanleria handiaz baliatuko gara, 24.000 biztanle inguru, bezero asko lortzeko. Leku aproposa da gure gimnasioa jartzeko, hainbeste biztanle izanda ez baita hain zaila izango bezeroak lortzea.

Makina berezi hauek sortutako energia Nexus enpresari saldu behar dizkiogu, Bartzelonako enpresa bat denez, garraio kostua ez litzateke ain handia izango eta horrez gain elektrizitatea gestionatzen duen enpresa bat izanik, konfiantza ematen digu eta hori oso garrantzitsua iruditzen zaigu enpresa aurrera eraman ahal izateko. Hori gutxi balitz, euren prezioak baxuak dira beste enpresekin alderatuz, beraz, ez genuen batere dudatu beraiekin kontaktatu eta proiektua abian jartzeko pausu handi bezain garrantzitsu bat emateko.

Gure enpresa bideragarria izango litzatekeen edo ez jakiteko, proiektua martxan jarri aurretik inkesta bat pasatzea erabaki dugu. Hau Beasain eta Ordizin egin dugu, gure gimnasioa bertan jarri nahi dugunez datuak oso baliagarriak dira guretzat. Inkesta hau 50 pertsoneri pasa diegu. Inkesta pertsona kirolzaleei pasatzea zen gure helburu eta emaitzak aztertu ondoren honako hau ondorioztatu dugu: %60ak gure gimnasioa erabiliko luke, %20ak ez eta beste %20 ak agian bisitatuko luketela esan digute. Beraz eramangarria dela ondorioztatu dugu.

#### INKESTAREN EMAITZAK:

